# BOSTGARREN ERAKASPENA.

## (I) ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Nork dizu iratze lekuen xehetasunak?
2. Nola gelditu ziren azkenean Kintako lekuarik Espainolekin?
3. Zer joko tzar egin zuten Espainolek?
4. Iratzetu zuena udaunt ona?

## (II) JAUN KAZETA EGILEA. 4.

Beransko ezarririk ere *Eskualduneun* gure iratze-lekuer darraizkoten xehetasunak, iduritzen zauku zuzen dela jakin dezan jendeak nola gelditu ginen azkenean Espainiako gobernamenduarekin.

Tenore oncan oldartua zitzaukun, ziri baten emaiteko, iduri deus ez: *Poincaré* eta *Barthou* hango buruzagien perekan hastera zoazilarik. Zer egin dute Pariseko gure jaunek. Beti bezala, onartu Espainolen jukutria tzar berria.

Galdatzen baitzauzkiguten hok ehun libera, iratzeen mugatik hunaindirat sartzeko, ehun liberakoa onetsi gure gizonek; erranez haatik, gobernamenduko moltsatik aterako zela sos hori, ez gure herrialdekotik.

Hau nunbait hor. Bainan, geroan, ez ote daukute emendatuko zerga hori Espainolek? On zitaken, on baino hobe, orai beretik betierekotz hortan finkatzea. Behar ere zen, ditugun bezako auzo nahasi herratsuekin. Ardietsi daukute bertzalde Parisetik, hartuko ahal dugula iduri zaukun iratze keta guzia; ez dugula beraz ukanen meta kondatzale, ez pizatzalerik nehor. Espainolek uzten zauzkiguten bortz ehun *toneladetan* bazen baihaurki andana ederra, bortz mila kintalen heina nunbait han; bainan izartzeko eskua heier onetsiz, nork ez du ikusten heien esku-peko jartzen ginela osoki?

Hola hola ere, burua ez ote dugu beheititu aski!... Urtetik urtera, gure gobernamendua ahulago, eta ausartago doazkigu Espainolak.

ETXE PARC …

## (III) ADITZ IKASKUNTZA.

31. darraizkoten 32. iduritzen zauku
33. oldartua zitzaukun 34. hastera zoatzilarik
35. baitzauzkiguten 36. ez ote daukute
37. On zitaken 38. Ausartago doazkigu.

### 31. JARRAIKI = suivre, aller après. Indicatif. Present

| A lui | A eux |
|---|---|
| Nik narraiko = je le suis | Nik narraikote = je les suis |
| Hik harraiko (m. f.) = tu le suis | Hik harraikote = tu les suis (m. f.) |
| Zuk zarraizko = vous le suivez | Zuk zarraizkote = vous les suivez |
| Harek darraiko = il le suit | Harek darraikote = il les suit |
| Guk garraizko = ns le suivons | Guk garraizkote = ns les suivons |
| Zuek zarraizkote = vs le suivez | Zuek zarraizketete = vs les suivez |
| Heiek darraikote = ils le suivent | Heiek darraizkote = ils les suivent |

### 34. JOAN - Aller Indicatif

| Présent | Imparfait |
|---|---|
| Ni noa = je vais | N nindoan = j'allais |
| Hi hoa = tu vas | H hindoan = tu allais |
| - zoatzi = vs allez | Z zinoatzin = vs alliez |
| Hura doa = il va | Hu zoan = il allait |
| Gu goatzi = ns allons | G. ginoatzin = ns allions |
| Zuek zoazte = vs allez | Zu zinoaztēn = vs alliez |
| Hek doatzi = ils vont | He zoatzin = ils allaient |

### 32 IZAN. Régime indirect. Indicatif (33)

| Present. Hura da = il est. | Imparfait. Hura zen = il était |
|---|---|
| Hura (lui) zait (à moi) = il m'est | Hura (lui) zitzaitan (à moi) = il m'était |
| — " — zaizu (à vous) = il vous est | — " — zitzaizun (à vous) = il vous était |
| — " — zaio = (à lui) = il lui est | — " — zitzaion (à lui) = il lui était |
| — " — zaigu (à nous) = il ns est | — " — zitzaigun (à nous) = il nous était |
| — " — zaizue (à vous) = il vous est | — " — zitzaizuen (à vous) = il vous était |
| — " — zaie (à eux) = il leur est | — " — zitzaien (à eux) = il leur était |

### 35. UKAN - Conj. à dble cplt. Indicatif Imparfait

C.D.P. GURI = A NOUS C.I.P.

Zuk zinauzkigun = vous nous les aviez
Harek zauzkigun = il nous les avait
Zuek zinauzkiguten = vous nous les aviez
Heiek zauzkiguten = ils nous les avaient

### 36. UKAN Conjugaison à dble complément. Indic. Présent

C.D.S. GURI = A nous C.I.P.

Zuk daukuzu = vous nous l'avez
Harek dauku = il nous l'a
Zuek daukuzue = vous nous l'avez
Heiek daukute = ils nous l'ont

Conj. Périphr. Erraiten daukute = ils nous le disent

(1) - «*Poincaré Raymond*» (1860-1934), politikari frantsesa «Errepublikako president» izendatu izana zen 1913ko urtarrilaren 17an.

(2) - «*Barthou Louis*» (1862-1934), Oloronek seme ospetsua, Frantziako ministro lehen hautatua izana zen, Poincaré lehendakaritzara igaitearekin.